




GAZTEMATIKA DATUETAN 2023

Gipuzkoako sustapen arloko datu esanguratsuenak



Bulego Teknikoa

Gaztematikako aholkulari taldea

gazteriabulegoteknikoa@gipuzkoa.eus

2024ko otsaila





Aurkibidea

Sarrera.....	3
1. Gipuzkoako haur, nerabe eta gazteak	4
2. Gaztematikaren hedapena	5
3. Gaztematikako sustapenerako Inbertsioa.....	6
4. Gaztematikako sustapeneko zerbitzuak.....	7
5. Gaztematikako zerbitzuen erabiltzaileak.....	8
6. Gaztematikako profesionalak.....	10
7. Gaztematikak eskaintzen duen prestakuntza.....	11
8. Laburpena.....	13
9. Hobetzeko proposamenak.....	14
10. Gaztematika datuetan adierazleen zerrenda.....	15
11. Lotura duten beste dokumentuak.....	17



Sarrera

- **Zer da**

Gipuzkoako sustapeneko sarearen egoera eta garapena neurtzeko esanguratsuenak diren adierazle bilduma bat da Gaztematika datuetan.

Adierazle sorta eremutan sailkatuta dago: Gipuzkoako haur, nerabe eta gazte kopurua, sarearen hedapena, sustapen arloko inbertsioa, Gaztematikako sustapeneko zerbitzuak, erabiltzaileak, profesionalak, sarearen antolakuntza eta prestakuntza.

Txostenean adierazle sortatik garrantzitsuenak aukeratu eta nabarmendu dira. Azken datuekin batera, izan duten ibilbidea jasotzen da. Horretaz gain, hobetzeko proposamenak gehitu dira.

Gaztematika datuetan adierazle sorta, txostenean nabarmendu diren baino adierazle gehiagoz osatua dago. Bukaeran, adierazle guztiak jasotzen dituen taula txertatzen da.

- **Zertarako**

Txostenaren helburua da sustapen arloko datu garrantzitsuenak profesionalen eskura jartzea, beraien lana errazteko eta kudeaketa prozesuetan laguntzeko.

Bestalde, txostena egiten da ere tokiko zein lurralde mailako sustapen politiken inguruko erabakiak hartzen laguntzeko.

- **Norentzat**

Gaztematika barruko hartzaileei begira egindako txostena da: toki zein lurralde mailako sustapeneko teknikarientzat, suspertzailentzat eta sareko hezitzaile eta politikarientzat.

- **Datuen iturriak**

Adierazleak elikatu eta eguneratzeko Gaztesare datu-baseaz baliatu gara. Horrekin batera, Gaztematikako beste txosten batzuetan oinarritu gara: Profesionalen errolda 2022, Haur eta nerabeen datu eta balorazioaren txostena 2022-2023, Gaztematikaren txosten ekonomikoa 2022 eta Gaztematika datuetan 2022.


Horietako txosten batzuk ez dira urtero egiten, horregatik, txostenean jasotako hainbat datu ez dira 2023ko datuekin eguneratu; txostenaren bukaerako taulan ikus daiteke datu bakoitzaren eguneratze data zein den.



1. Gipuzkoako haur, nerabe eta gazteak

1

Gipuzkoako 0-29 adin tartearen pisua eta sexuaren arabeko banaketa




Gipuzkoan **207.682** pertsona daude 0-29 adin tartean; populazio orokorraren **%28,48a** da hori. Azken datuaren oso antzekoa (% 28,39).

Aurreko urteko datuekin alderatuz: nerabe eta gazte kopuruak pixka bat igo dira, eta haurrenak berriz jaitsiera apala izan du.

Sexuaren arabeko datua ere orekatua mantendu da: %51 gizonak dira, eta %49a emakumezkoak.

2

Gipuzkoako haur, nerabe eta gazteen pisua




Gazteen taldea pisu gehien daukana da, ondoren haurren taldea, eta pisu gutxiena daukana nerabeen taldea da, adin tartea txikiagoa delako.



2. Gaztematikaren hedapena

1

Gaztematikako herri kopurua




2023an, Gipuzkoako 88 herrietatik **77** herri daude sarean, 2022an baino bat gehiago (Berrobi).

Saretik kanpo dauden hamaika herrietatik zazpi txikiak dira. 2.000 biztanle baino gutxiago dituzte: Gabiria, Gaintza, Hernialde, Leintz-Gatzaga, Zerain, Asteasu eta Legorreta. Antzuola, Getaria, Mutriku eta Lezo dira Gaztematikatik kanpo dauden herri handienak.

2

Gaztematikaren populazioarekiko estaldura



Berrobi oso herri txikia izanik, sarearen estaldura ez da asko aldatu: Gaztematika barruan Gipuzkoako populazioaren **%97,14a** dago.




3. Gaztematikako sustapenerako inbertsioa

1

Haur, nerabe eta gazteen Sustapenerako aurrekontua

Aurrekontu orokorrarekiko pisua




Grafiko honetan bi adierazle batu dira: batetik, toki zein lurralde mailako administrazioek haur, nerabe eta gazteen sustapenerako daukaten aurrekontu orokorra jasotzen da; bestetik, kopuru hori administrazioetako aurrekontu orokorrarekin alderatzen da, sustapenerako aurrekontuak zer pisu daukan ikusteko. 2023an **%0,88koa** izan da.

Azken hiru urtetako aurrekontuak aztertuz, **goranzko joera apala** egonkortzen ari dela dirudi. Pixkanaka igotzen ari da haur, nerabe eta gazteen sustapenerako aurrekontua, eta horrekin batera, partida horrek aurrekontu orokorrean daukan pisua.

2

Pertsona bakoitzeko inbertsioa



Sustapenerako aurrekontua 0-29 adin tartean dauden pertsonen artean zatikatuz, pertsona bakoitzeko inbertsioa ateratzen dugu.

Datu hau ere **igo da 2023an**, baina aurreko urtekoarekin alderatzekoan kontuan izan behar dugu adin tartea murriztu dugula: 2022an, 0-30 zen.

Adin tartea aldatzea erabaki da Gazteria lege berriarekin eta beste erakundeetako adierazleekin bateratzeko.




4. Gaztematikako sustapeneko zerbitzuak

1

Sustapeneko zerbitzu eta ekipamendu kopurua

Sustapeneko zerbitzu kopurua



2022an baino 4 zerbitzu gehiago zenbatu dira 2023an: zerbitzu mota bakoitzeko, bat gehiago, guztira **82**.

Ekipamendu kopurua ez da 2023an eguneratu; 2022an **152** ekipamendu zeuden Gaztematikan: 65 haurrentzat, 67 nerabeentzat eta 20 gazteentzat.

HAURRENTZAKO ZERBITZUAK

HZ 22

Āndoain, Aretxabaleta, Arrasate, Azkoitia, Azpeitia, Bergara, Deba, Donostia, Eibar, Elgoibar, Errenteria, Eskoriatza, Irun, Mendaro, Oiartzun, Oñati, Orio, Pasaia, Soraluze, Urnieta, Zarautz eta Zumaia*.

Urnietako ludoteka 2023an berriro ireki da.

NERABEENTZAKO ZERBITZUAK

NZ 31

Āndoain, Aretxabaleta, Arrasate, Astigarraga, Azkoitia, Azpeitia, Bergara, Deba, Donostia, Eibar, Elgoibar, Errenteria, Eskoriatza, Hernani, Hondarribia, Irun, Lasarte, Legazpi, Mendaro, Oiartzun, Ordizia, Oñati, Orio, Pasaia, Soraluze, Tolosa, Urnieta, Urretxu, Usurbil, Zarautz eta Zumaia.

Lazkaoko zerbitzua desagertu da eta Deba eta Oiartzun sartu dira zerrendan.

GAZTEENTZAKO ZERBITZUAK

GZ 13

Arrasate, Azkoitia, Azpeitia, Donostia Kontadores, Donostia Gaztegune, Hondarribia, Irun, Lasarte, Legazpi, Ordizia, Oñati, Urnieta eta Zarautz.

2022an Donostiako Gaztegunea ez genuen zenbatu, horregatik 2023an 13 zerbitzu daude zerrendan.

PARTE HARTZEA SUSTATZEKO ZERBITZUAK

PSZ 16

Aia, Amezketa, Anoeta, Berastegi, Elgeta, Errezil, Ibarra, Idiazabal, Irura, Itsasondo, Olaberria, Ormaiztegi, Zegama, Zizurkil eta Zestoa.

Horiekin batera, 2022 bukaeran Gure plaza txo! zerbitzu pilotua abiatu zen Aldundiko Gazteria zerbitzuaren eskutik; eta 2023 osoan zehar martxan egon da bederatzi herri txikitán: Aizarnazabal, Albiztur, Alkiza, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain Ikaztegieta, Larraul eta Lizartza.

Guztira, beraz, 16 zerbitzu 24 herritan.




5. Gaztematikako zerbitzuen erabiltzaileak

2

Zerbitzuetako erabiltzaile kopurua

Zerbitzuetako erabiltzaileak




2023an 2022an baino **haur eta nerabe gehiago** erabili dituzte sustapen zerbitzuak.

Igoera hori portzentajetan ere islatzen da. Zerbitzua erabiltzen duten haurren portzentajeak 2 puntu egin du gora: %7a izatetik %9a izatera pasa da; nerabeen kasuan puntu bat igo da: %8tik %9ra.

3


Zerbitzuetako erabiltzaileen sexua

Haurren zerbitzuetako erabiltzaileak sexuaren arabera



Hautzaroen neskek mutilek baino gehiago erabili dituzte sustapen zerbitzuak 2023an: hiru puntu igo da portzentajea.

Nerabeen zerbitzuetako erabiltzaileak sexuaren arabera



Nerabezaroen berriz, kontrako joera eman da: 6 puntu igo da portzentajea eta **mutilak** gehiengoa izatera pasa dira.




5. Gaztematikako zerbitzuen erabiltzaileak

4

Sustapeneko zerbitzuetako erabiltzaileen balorazioa

Zerbitzuetako erabiltzaileen balorazioa




Haur eta nerabeek oso ondo baloratu dituzte sustapeneko zerbitzuak. 2023an, bi adin tartetan balorazioa berdina eman da: **8,4**koa izan da batez besteko balorazio orokorra.

Aurreko urtearekin alderatuz, nerabeen balorazioa mantendu da eta haurrena, berriz, puntu erdi bat igo da.

5

Udalekuetan egon den parte-hartzea

Udalekuetan egon den parte-hartzea



2023an, **haur eta nerabe gehiagok parte hartu dute udalekuetan**. Sexuaren arabera parte hartzea nahiko orekatua izan den arren, nesken parte hartzea altuagoa izan da, bai haurren artean (%52a), baita nerabeen artean ere (%54a).

Haurrak:

76 herrietatik 71n, haurrentzako udako eskaintza publikoa antolatu da. Beste 4 herrietan herriko eragileek eskaini dute, eta herri batetik ez dugu daturik jaso. 4-11 urteko haurren **%25ak** parte hartu du udako kanpainan. Guztira **12.939 haur**.

Nerabeak:

Nerabeentzako udako eskaintza publikoa 30 herrietan antolatzen da. 12-17 adin tarteko **%6ak** parte hartu du udako sustapen programazioan; guztira **2.678 nerabe**.

Uda kanpainarako **1.578 begirale** kontratatu dira, horietatik **%74a neska** izan dira.



6. Gaztematikako profesionalak

1



Gaztematikako profesionalak

Hezitzaileak dira Gaztematikako kolektiborik handiena, eta urtez urte pixkanaka handitzen ari da. 2023ko erroldan **239** hezitzaile daude.

Informatzaileen taldea berriz **txikitzen** ari da.

Teknikari kopurua jaitsi egin da kategoria **doitu** delako, taldetik kendu dira administrari profila zeukatenak.


Administrariak azaltzen dira lehenengo aldiz taulan, 2022ko erroldan profil horren inguruko informazioa jasotzen hasi ginelako.*



Gaztematikako lau profesioaletik hiru emakumezkoak dira.

2

Gaztematikako hezitzaileak



- Hurrekin edo nerabeekin lan egiten duten hezitzaileen kopurua
- Nerabeen hezitzaileak
- Gazteen hezitzaileak
- Haur eta nerabeekin

Hurrekin edo nerabeekin lan egiten duten hezitzaileen kopurua **berdintsua** da, nahiz eta nerabeen zerbitzu gehiago egon; zehazki, haurrentzako 22 zerbitzu daude, eta nerabeentzako 31.

Gazteekin lan egiten duten hezitzaile kopurua oso baxua da: hiru besterik ez.


* Administrari kopurua Gaztesaretik jasota dago, eta bertan ez dago profil horretako langile guztien informazioa.




7. Gaztematikak eskaintzen duen prestakuntza

1

Prestakuntzan egon den parte-hartzea



Prestakuntzan parte hartu duten pertsona kopurua guztira




2023an igo egin da prestakuntza eskaintzan parte hartu duen pertsona kopurua.


Treba gurasoen programan eman da igoera nabarmenena. **Gurasoak** izan dira prestakuntzaren **hartzaile nagusiak**: % 88a.

2

Eskaini diren prestakuntza orduak



Prestakuntza orduak guztira



2023an gurasoentzat izan dira prestakuntza ordu gehienak. Treba gurasoen programaren baitan prestakuntza ordu guztien %70a eskaini da; 2022an %64a izan zen.


Profesionalentzako prestakuntza orduak berriz, jaitsi egin dira.




7. Gaztematikak eskaintzen duen prestakuntza

3

Prestakuntzaren balorazioa



Prestakuntzaren balorazioen batez bestekoa



Prestakuntzan parte hartu duten pertsonen balorazioak oso altuak izan dira orokorrean; altuenak, Treba Gurusoak eta Treba gazteak programetan eman dira.

2022ko batez bestekoa **hobetzea** lortu da 2023an.

8. Laburpena

1. Gipuzkoako haur, nerabe eta gazteak

- 0-29 adin tartean 207.682 pertsona daude Gipuzkoan, populazio orokorraren %28,48a.

1. Hedapena

- 2023an 77 herrik osatzen dute Gaztematika sarea, Gipuzkoako populazioaren %97,14a suposatzen du horrek.

3. Gaztematikako sustapenerako Inbertsioa

- Sustapenerako aurrekontua, horren pisua aurrekontu orokorrarekiko eta pertsona bakoitzeko inbertsioa igo diren arren, igoera apalak izan dira.

4. Gaztematikako sustapenerako zerbitzuak

- Pixkanaka gero eta herri gehiagotan daude sustapen zerbitzuak: 2023an 2022an baino 4 zerbitzu gehiago daude, guztira 82. Oraindik ere gehiago dira nerabeen zerbitzuak (31), ondoren datoz haurren zerbitzuak (22), jarraian parte-hartzea sustatzeko zerbitzuak (16), eta azkenik gazteentzako zerbitzuak (13).
- Gero eta haur eta nerabe gehiagok parte hartzen dute zerbitzuetan.
- Sexuari dagokionez, neskek gehiago erabili dituzte haurren zerbitzuak, eta mutilek, berriz, nerabeenak.
- Haur eta nerabeek oso ondo baloratu dituzte sustapen zerbitzuak: batez bestekoa 8,4 izan da bi adinetan.

- Udalekuetan parte hartzeak gora egin du orokorrean, eta adin tarte bakoitzean. Halere, desoreka handia egon da haur eta nerabeen parte hartzearen artean: haurren %25ak parte hartu du udako eskaintzan, eta nerabeen %6ak bakarrik.

- Urtean zehar, berriz, parte hartzearen portzentajea berdina izan da bi adin tarteetan: haur eta nerabe populazio osoaren %9ak parte hartu du sustapen zerbitzuetan.

4. Gaztematikako profesionalak

- 358 profesionalak lan egiten dute Gaztematika sarean. Horietatik gehienak (239) hezitzaileak dira.
- Oso feminizatua dagoen sektorea da: %74a emakumeak dira.

5. Gaztematikako prestakuntza

- Gaztematikak eskaini duen prestakuntza oso ondo baloratu da: 8,55ekoa izan da batez besteko balorazioa.
- 2023an Treba gurasoak programak indar handia hartu du: hitzaldi asko eskaini dira Gipuzkoan zehar, eta pertsona askok parte hartu dute.
- Profesionalen parte-hartzea, ordea, gutxitu egin da; beherakada hezitzaileen zein teknikarien artean eman da.



9. Hobetzeko proposamenak

- Zerbitzuetako erabiltzaileen inguruko informazioa hobetu dezakegu. Egun, adina eta sexua bakarrik jasotzen ditugu, eta interesgarria litzateke datu gehiago edukitzea zerbitzuen erabilera hobeto ezagutzeko. Erabiltzaileen adina eta eskola mota jasotzetik has gaitzke.
- Zerbitzu inklusiboagoak lortzeko atzerritar jatorriko erabiltzaile kopurua jasotzen saia gaitzke. Datu hori lortuta, lurraldean/herrian dagoen mota horretako populazio portzentajearekin alderatzeko aukera izango genuke. Modu horretan sutapen zerbitzuetan gain edo azpi errepresentazioa dagoen jakingo genuke.
- Ildo beretik jarraituz, eta gure arloaren errealitatea hobeto ezagutzeko asmoz, zerbitzuen eta udalekuen prezioa jasotzen has gaitzke. Horrekin batera azertu daitezke ere sustapeneko eskaintzan parte hartzeko ematen diren laguntzak, beka edo hobariak.
- Zerbitzuak hobetzeko ezinbestekoa da erabiltzaileen iritzia kontutan hartzea. Lan handia egitean ari dira zerbitzuetako hezitzaileak haur eta nerabeen beharretara egokitzeko; eta horren isla dira lortutako balorazioak.
- Hori horrela izanik, egia da ere hobetzeko tarte dagoela. Adibidez, haurren balorazioari dagokionez. Zailtasunak daude haurren iritzia modu sistematizatuan jasotzeko, eta lurralde mailan partekatzeko. Prozesu hori errazteko lagungarri izan daiteke haurren iritzia jasotzeko metodologia bateratzea, nerabeekin egin den moduan.
- Erabiltzaileen balorazio prozesua hobetzeko beste bide bat izan daiteke udako eskaintzaren inguruko balorazioa jasotzen hastea.

10. Gaztematika Datuetan: Adierazleen zerrenda

GAZTEMATIKA DATUETAN	2023	Sexua			Datua urtea
		E	G	EB	
1 POPULAZIOA					
Gipuzkoako haur, nerabe eta gazteak	%28,48	%51	%49		2022
Haurrak (0-11)	%10	%52	%48		2022
Nerabeak (12-17)	%6,35	%51	%49		2022
Gazteak (18-29)	%12,12	%51	%49		2022
2 HEDAPENA					
Gaztematika osatzen duten herri kopurua	77				2023
Gaztematikaren populazioarekiko estaldura	%97,14	%49	%51		2022
3 INBERTSIOA					
Haur Nerabe eta Gazteen Sustapenerako aurrekontua	21.503.852€				2023
Aurrekontu orokorrarekiko portzentajea	% 0,88				2023
Inbertsioa pertsona bakoitzeko	103,55€				2023
Udaletan Sustapena lantzeko Aldunditik bideratutako diru-laguntza	472.500€				2023
4 SUSTAPEN ZERBITZUAK					
Parte-hartzea Sustatzeko Zerbitzu (PSZ) kopurua	16				2023
Haurren Zerbitzu kopurua	22				2023
Haurrentzako ekipamendu kopurua	65				2022
Nerabeen Zerbitzu kopurua	31				2023
Nerabeentzako ekipamendu kopurua	67				2022
Gazte Zerbitzu kopurua	13				2023
Gazteentzako ekipamendu kopurua	20				2022
Gaztematikako sustapen zerbitzu kopurua	82				2023
Gaztematikako sustapen ekipamendu kopurua	152				2022
Familia gune kopurua	12				2022
5 ZERBITZUETAKO ERABILITZAILEAK					
Gaztematikako sustapen zerbitzuetako haur kopurua	3.711	%53	%46	%1	2022/23
Erabiltzaileen balorazioa	8,4				2022/23
Gaztematikako sustapen zerbitzuetako nerabe kopurua	3.852	%44	%56	0	2022/23
Erabiltzaileen balorazioa	8,4				2022/23
Gaztematikako sustapen zerbitzuetako gazte kopurua					
Erabiltzaileen balorazioa					
Udalekuetan parte hartzen duten haur eta nerabe kopurua	15.617	%52	%48		2023
Haurrak 4-11	12.939	%52	%48		2023
Nerabeak 12-17	2.678	%54	%46		2023

10. Gaztematika Datuetan: Adierazleen zerrenda

6 ZERBITZUETAKO PROFESIONALAK					
Gaztematikan lan egiten duten erreferente teknikoak	89	%75	%25		2022
Gaztematikan lan egiten duten suspertzaileak	9	%89	%11		2022
Gaztematikan lan egiten duten informatzaileak	8	%88	%12		2022
Gaztematikan lan egiten duten hezitzaileak	239	%74	%26		2022
Gaztematikan lan egiten duten administrariak	13	%100			2022
Gaztematika sarean lan egiten duten profesionalak	358	%74	%26		2022
Udalekuetan lan egiten duten begiraleak	1.578	%74	%26		2023
Gaztematika sareko sustapen politikariak	30	%67	%33		2023
7 ANTOLAKUNTZA					
Gaztematikako hezitzaileen foroetako parte-hartzea	53	%69	%31		2022/23
Balorazioa	6,71				2022/23
Gaztematikako teknikarien foroetako parte-hartzea	59	%80	%20		2022/23
Balorazioa	7,84				2022/23
Gaztematikako foroetako parte-hartzea guztira	112				2022/23
Balorazioa	7,27				2022/23
8 PRESTAKUNTZA					
Gaztematika sareko gurasoentzat prestakuntza eskaintza: orduak	175				2022/23
Parte-hartzea	2.493	%84	%16		2022/23
Balorazioa	9,2				2022/23
Gaztematikako herrietan bizi diren gazteei zuzendutako prestakuntza eskaintza: orduak	23				2022/23
Parte-hartzea	119				2022/23
Balorazioa	9				2022/23
HitzEgiten: orduak	3				2022/23
Parte-hartzea	34				2022/23
balorazioa	8,33				2022/23
Gaztematika sareko hezitzaileentzat prestakuntza eskaintza: orduak	34,5				2022/23
Parte-hartzea	137	%84	%16		2022/23
Balorazioa	8,44				2022/23
Gaztematika sareko teknikarientzat prestakuntza eskaintza: orduak	16				2022/23
Parte-hartzea	56	%90	%10		2022/23
Balorazioa	7,8				2022/23
Gaztematikako TREBAkuntza: orduak	251				2022/23
parte-hartzea	2839				2022/23
balorazioa	8,55				2022/23

11. Lotura duten dokumentuak

1. [Gaztematika datuetan 2022](#)
2. [Errolda. Haur nerabe eta gazteen sustapeneko profesionalak Gipuzkoan 2022](#)
3. [Erabiltzaileen datuak eta balorazioa 2022-2023 ikasturtea](#)
4. Gaztematikaren txosten ekonomikoa 2022
5. [Gaztematikaren argazkia 2019-2022](#)

